

★ Anna
KADABRA★

The text 'Anna KADABRA' is rendered in a vibrant pink color. The word 'Anna' is in a cursive script, while 'KADABRA' is in a bold, serif font. The design is embellished with three black stars: one above the first 'A' of 'Anna', one between the two 'n's, and one above the final 'A' of 'KADABRA'. A black witch's hat is positioned above the last 'A' of 'KADABRA'. The letter 'K' in 'KADABRA' features a black and white striped pattern on its left vertical stroke.

Madame Prune

Nire andereñoa da, eta gure klubeko burua. Antigoaleko samarra dirudi, baina gu baino are pitzatuago dago!

Marcus Pocus

Nire lagunik onena, nahiz eta haren beleak ez nauen oso gogoko. Magia berdea du, eta ikaragarri gustuko ditu txantxak eta plan zentzugabeak.

Anna Kadabra

Hau ni naiz, eta hau nire katua!
Nire ortzadar-magiari esker, arazo mordoa konpon ditzaket... eta beste potoloago batzuk sortu.

Sara Kazam


Taldeko zaharrena da, ikaslerik onena... eta agintzaileena. Haren magia horia da, eta saguzar pinpirin bat dauka maskotatzat.

Oliver Dark

Urrundu zaitez mukizu honengandik. Bere birraitona bezalakoa izan nahi du: Moonvilleko sorgin-ehiztaririk ospetsuena. Harrapa gaitzala ba!

Angela Sesamo

Bakarra da munduan, haren zapoa bezala. Magia morea du, eta izugarri maite ditu komikiak eta bideojokoak, baita egunero desberdin sentitzea ere.



Moonville

Haitzarte Mamua

Hirirako errepidea

Koko eta Txokolate

Haitzulo Bikiak



Mac Moonen etxaldea



Jauregi Sorgindua

Sorgin-ehiztarien kuartela

Maitagarrien putzua

Ekaitzen itsasargia

Anna Kadabraren etxea

Moonvilleko eskola

Zingira Beldurgarria

Gaztainondo Zaharra

© testuarena: Pedro Mañas, 2020

© ilustrazioena: David Sierra Listón, 2020

© Travel Bug Edizioak, 2022

Travel Bug Edizioak
Busca Isusi, 46
20015 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 651 181 147 / 657 736 522
www.travelbug.es
editorial@travelbug.es

Itzulpena: Aiora Jaka Irizar
Maketazioa: Ariana Design Studio. www.ariana-ds.com

ISBN: 978-84-123820-5-1
Lege gordailua: LG D 00893-2022
Inprimaketa: Gráficas Ulzama

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo TRAVEL BUGera.



Arazo hegodun bat

travel bug



Ikusi duzu inoiz txerri
bat hegan?

Zatoz, zatoz! Garaiz zabilta sortu dudan
kaka-nahastea ikusteko. Edo, zehazkiago, sortu
dudan txerrikaka-nahastea ikusteko.

Baina zaude! Etxea ez da teilatutik hasi behar.
Edo, sorginok diogun moduan, ez heldu inoiz
makilatxoari goiko muturretik. Zeure burua
zapo bihurtzeko arriskua duzu.

Hasieratik hasiko naiz. Anna Kadabra dut

izena eta sorginkeria-ikaslea naiz. Moonvillen bizi naiz. Herria txiki-txikia da, baina sekretu handi-handi bat gordetzen du: leku sorgindua da! Hementxe gurutzatzen dira herrialde osoko korrante magikoak.

Nire gurasoek erabaki zuten hona etorriko ginela bizitzera, eta orduantxe esnatu ziren nire botereak. Baina nire amak eta aitak ez dakite



sorgina naizenik. Ez esan ezer, e?


Goizero eskolara joaten naiz, eta, gauero, jauregi sorgindu bateko dorrera hegaldatzen naiz. Han, aztikeria ikasten dut nire lagun Marcus, Angela eta Sararekin. Madame Prunek errekrutatu gintuen denok, Moonvilleri magia itzuli nahi dion sorgin ero samar batek.

Gure maskotak ere bereziak dira. Cosmo, nire katua, ikaragarri iheskorra da; susmoa dut ez ote dakien paretak zeharkatzen. Nire galtzerdien tiradera hamar segundoan lardaskatzen ere badaki. Baina hori ez du magiagatik egiten, oso jenio txarra duelako baizik.

Badira, bestalde, animalia magiko basatiak. Ostiralero ikasten ditugu zoologia fantastikoko klasean.

Zapopotamoa, adibidez, berdea da,

garatxoduna eta arropa-armairu baten neurrikoa. Bolbora-oiloak arrautza leherkorak erruten ditu. Sugedorri-buztandun urtxintxa oso samurra da alde batetik, baina hilgarria bestetik. Hor dugu untxi ikusezina ere. Honelako itxura du gutxi gorabehera:



Liburu honetan ezagutuko duzun izakiak adar bat du bekokian eta lorratz koloretsu bat uzten du zerua zeharkatzen duenean. Badakizu zer den?

Ez, ez da unikornio bat, ezta pegaso bat ere.

Txerrikornio bat da. Botere bereziak —eta arriskutsuak!— dituen txerri moduko bat.

Baina, pentsatzen jarrita, beste txerri klase baten erruz hasi zen dena. Eta txerri hori are arriskutsuagoa da: eskolako nire mahaikidea, Oliver Dark izeneko astapito bat.



Mokordo bat egunkari-azaletan



Oliverren birraitona Moonvilleko sorgin-ehiztari handi bat izan zen. Hain zen ospetsua, estatua bat ere egin zioten. Harengandik, magiaren aurkako gorrotoa heredatu zuen Oliverrek.

A, eta astakirten-aurpegia.

Umemoko zakarripurdi hark sorginak herrira itzuli zirelako susmoa zeukan. Horregatik, zokomiran ibiltzen zen behin eta berriz gure

jauregiaren inguruan. Behin, etxeari su ematen ere saiatu zen.

—Esan ez dizuet ba hor biltzen direla! — errepikatzen zuen—. Sorginak itzuli dira Moonvillera!

Zorionez, gutxik egiten zioten kasu, ez baitzeukan frogarik. Gutxienez egunkarian albiste hura agertu zen astelehen hartara arte.

Goiz zen, eta ni sukaldean nengoen, nire gurasoekin gosaltzen. Bakoitza bere modura ari zen. Nire aitak halako patxadaz zabaltzen zuen gurina bere tostadan, koadro bat margotzen ari zela ematen zuen. Amak haginkadaka irensten zuen, denborarik ez galtzarren. Niri lurrera erori zitzaidan neurea, eta, jasotzerakoan, oin biluziaz zapaldu nuen. Txof.

—Anna! —murduskatu zuen amak haserre,

ahoko apurrak aitari botaz.

Horraino, dena normala. Gosaritarako mahaian, katiluak, platerak eta pitxerrak zeuden. Eta egunkari bat. Goizero uzten ziguten etxeko atean.

Niretzat, gauza bakarrerako balio zuen egunkariak: zoru garbitu berria ez zapaltzeko. Ikuste hutsak logura sartzen zidan. Egun hartan, ordea, kolpetik esnatzeko balio izan zidan.

Azaleko albiste zeharo interesgarria zen.

Are zertxobait kezagarria.

Eta, egia esateko, algaragarri samarra ere bai.



Kontua zen gauean eraso egin ziotela Oliverren birraitonaren omenezko estatuari. «Eraso» egin ziotela diodanean, zera esan nahi dut: mokordo bat bota ziotela! Egunkariko argazkian, kaka-plasta distiratsua zurrustaka irristatzen zen Oliver Rufus Darken brontzezko buru harroan behera.

Eta ez zirudien preseski uso-zirina. Meloi baten neurrikoa zen.

Eman zidan barregurarekin, ia berriro erori



zitzaidan tostada.

Handik gutxira, barre egiteari utzi, eta kezkatzen hasi nintzen. Nork egin zuen txantxa gaizto hura? Nik ezagutzen ez nuen sorgin mendekari bat izan ote zen? Eta zer egingo zuen Oliverrek jakiten zuenean?

Ikasgelara sartutakoan aurkitu nuen erantzuna.

Inoiz baino goizago iritsi nintzen, Madame Prune egunkariko kontuaz ohartarazteko. Gure andereñoa da, baina baita gure klub magikoko buruzagi sekretua ere.

Zoritxarrez, irakaslea ez zen oraindik iritsi. Heldu zen bakarra, hain zuzen, Oliver zen.

—Kaixo, Anna —xuxurlatu zidan, misterioz betetako irribarre batez—. Zure zain nengoen.

—Nire zain? —Nahi gabe ere, dardaraka hasi nintzen.

Nire makilatxoa atera eta Oliver legatz bihurtzeko zorian egon nintzen. Legatzak dira ondoen egiten dakidana. Gero, gogoratu nintzen ni ez nintzela ezeren errudun, eta sakon hartu nuen arnasa.

—Zerbait larria gertatu da —jarraitu zuen Oliverrek—. Nire birraitonaren estatuari eraso diote bart.

Eta zergatik begiratzen zidan niri? Nik ez nuke konjuru *Kaka-jaurtitzai*le bat xahutuko brontzezko agure haren kontra.

—Ze lotsagabeak —esan nuen, tuntun-plantak eginez.

—Estatua zure gurasoan gozotegiaren ondoan dago —gaineratu zuen berak—. Haiek ez dute ezer ikusi?

—Ez —ukatu nuen—. Esango zidaten bestela.

—Ziur nago sorginak izan direla —

murmurikatu zuen Oliverrek amorruez—. Anna, zure etxea jauregi zaharretik oso hurbil dago. Zure leihoan behaketa-gune bat jartzen utzi behar didazu. Horrela jakin ahal izango dut zer gertatzen den han gauero.

Hara, barrenustel hura nire etxean sartu baino, nahiago nuke mofeta-familia bat gonbidatu.

—Uztazu pentsatzen —esan nion, eta istanterara—: Ezta erotuta ere. Gainera, sorginen kontu hori lelokeria bat da.

—Tuntun hutsa zara —bota zidan, haserre—. Noiz konturatuko zarete arrazoi dudala?

—Txerriek hegan egitean —xuxurlatu nuen, harro.

Bueno, ba une hartantxe... txerri bat hegan.



pasatu zen leiho aurretik!

Txerri bat zirudien, behintzat. Kontua da adar bat zeukala kopetan eta purpurina arrasto bat uzten zuela airean. Urde bat izateko, oso moñoñoa zen.

—Aiba! —oihukatu zuen Oliverrek, besotik heltzen zidalarik—. Ikusi duzu hori?

—E... —saiatu nintzen disimulatzen, litro bat listu irentsiz—. Ikusi? Zer?



Ados, astea hasi berria zen, eta magia kontrolatik kanpo zegoen jada. Halere, Oliverren haluzinazioak zirelako itxurak egin behar nituen.

—Uso potolo bat izango zen —esan nion, begirada mahairantz itzuliz.

Baina Oliverrek, noski, ez zidan sinetsi. Sekulako tonto-aurpegia izan zuen goiz osoan. Normalean baino tontoagoa.